


ERAIKUNTZAKO KOSTUEN INDIZEA (EKI), 2009KO URTARRILA

Euskal AEko eraikuntzako kostuak %1,0 igo ziren 2009ko urtarrilean aurreko hilaren aldean

Azken hamabi hilabeteetan (2008ko urtarriletik 2009ko urtarrilera) eraikuntzako kostuak %3,2 igo dira.

Euskal AEn Eraikuntzako Kostuen Indizeak %1,0ko igoera izan du 2009ko urtarrilean, aurreko hilabetearen aldean; horrela, hilabete horretako urte arteko tasa %3,2raino igo da, EUSTATEN datuen arabera.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2009



(*)Gehikuntza urtarrileko urte artekoa da
Iturria: EUSTAT

2009ko urtarrilean, lan-eskuaren kostua %2,0 igo zen; lehengaien kostuak, berriz, %0,7.

Urtarrilean Eraikuntza eta Obra Zibila azpisektoreek antzeko bilakaera izan zuten lehengaien kostuari dagokionez, aurreko hilaren aldean. Eraikuntzaren atalean %+0,8 igo dira eta Obra Zibilarenean %+0,6. Urteko bilakaeran badira alde nabarmenak: Eraikuntzako lehengaien kostuak %+4,6 hazi ziren; Obra zibilekoak, berriz, %-0,9 jaitsi.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenak ondokoak izan dira: Ez-metalezko meak (%9,1), Ura (%7,4), Altzarigintza (%6,5); Industria kimikoa (%4,4). Aitzitik, urteko prezioetan (2009ko urtarrila, 2008koaren aldean) murrizketak izan dituzte Petrolioaren (%-27,7), eta Metalurgiaren (%-0,5) lehengaiek.

Eraikuntzaren kostuen indizea. Euskal AE / Datu aurrerapena. 2009ko urtarrila.

GOIBURUAK	INDIZEA 2005= 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	117,7	1,0	3,2	1,0
ERAIKINAK	118,2	1,0	4,1	1,0
OBRA ZIBILA	115,8	1,0	-0,1	1,0
LEHENGAIEN KOSTUA	117,3	0,7	3,4	0,7
ERAIKINAK	118,0	0,8	4,6	0,8
OBRA ZIBILA	114,6	0,6	-0,9	0,6
LAN-ESKUAREN KOSTUA	118,9	2,0	2,0	2,0

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp